

MUNIBE (Ciencias Naturales)	41	123-126	SAN SEBASTIAN	1989-1990	ISSN 0027 - 3414
-----------------------------	----	---------	---------------	-----------	------------------

Fecha recepción: 8-X-91

## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Landare katalogoari eraskin eta zuzenketak (II)

Additions and corrections to the floristic catalog of Alava, Bizkaia and Gipuzkoa (Basque Country), II

**PALABRAS CLAVE:** Plantas vasculares, corología, País Vasco

**KEY WORDS:** Vascular plants, chorology, Basque Country.

I. AIZPURU\*  
José A. APERRIBAI\*  
Francisco GARIN\*

### LABURPENA

Euskal Herriko floraren katalogoaren osatze lanekin jarraituz, 25 taxoi aipatzen dira; hauetatik 24 interesa duten ekarpenak dira eta bestea lehen argitaratutako aipamen bateri eginiko zuzenketa.

### RESUMEN

Continuando con las contribuciones al catálogo de la flora del País Vasco, se mencionan 25 táxones; de ellos 24 son aportaciones de interés y, la restante, una corrección de una cita publicada con anterioridad.

### RESUME

On apporte encore 25 taxons au catalogue de la flore du Pays Basque, dont 24 tout à fait nouveaux; le restant corrige les données publiées au préalable.

Aurrekoan esaten genionari jarraituz, hainbeste landare taxoi desberdinak dauden eskualdeetan, Euskal Herriaren kasu, ia osa ezineko lana bihurtzen da katalago bat amaitutzat ematea. Honen oroigarri berria, hemen aipatzen ditugu 25 taxoiak, hauetako gehienak Lurralte Historikoaren batetan benik ezagutzen ez zirenak orain arte.

Aipamen hauen lekuoa egileek bildu dituzte eta ARAN herbarioan gordetzen dira, besterik esaten ez denean behintzat. Lurralte osoa 30T husoaren barruan dagoenez, UTM koordenatuak emate-rakoan ez dugu hau aipatzen.

#### *Trichomanes speciosum* Willd.

GIPUZKOA, Hernani: Pagoaga erreka, WN8884, 245 m, ARAN 6.91.

GIPUZKOA, Urnieta: Leitziturriko erreka, WN8585, 350 m, ARAN 3.91.

Zoru silizeotan azaltzen diren urjauzi txikietan. Lokalitate hauek, taxoi honen banaketa arearen ekialdea mugatzen dute, zein, bestalde, Gipuzkoan Jaizkibel menditik besterik ez zen ezagutzen.

***Cyrtomium falcatum* (L. fil.) C. Presl /*Polystichum falcatum* (L. fii.) Diels**

GIPUZKOA, Donostia: kaiaren harresiak, WN8297, 5 m, ARAN 583.90.

GIPUZKOA, Donostia: Ulia mendia, WN8398, 120 eta 140 m, ARAN 672.90.

Asia ekialdekoa eta Makaronesiakoa izatez, urte asko dala bertakotua dirudi, zeren eta kaiaren harresi batean populazio ederrak osatzen ditu, 100 indibiduoik gora, eta Ulia mendian populazio bat baino gehiago du gutxi eraldatutako inguruetaan, areharri artean sortzen diren trokarteetan fronde izugarriak bilakatuz. Orain arte, Bartzelonako kaiean bakarrik

\* Aranzadi Zientzi Elkartea  
I. Zuloaga Eparantza (Museoa)  
20003 Donostia-San Sebastián.

zen ezaguna Iberiar Penintsulan (CASASAYAS & FARRAS, 1986: 425), bainan jadanik PARROT-ek, 1982: 15 eta 1984: 31, hemendik gertu, Miarrizen, aurkiturik zuen.

**Dryopteris aemula** (Aiton) Kuntze

GIPUZKOA, Hernani: Pagoaga erreka, WN8884, 255 m, ARAN 5.91.

GIPUZKOA, Urnieta: Leitziturriko erreka, WN8585, 350 m, ARAN 1.91.

Zoru silizeotan, sakan hondoetako harkaitz puskak haundien artean. Gipuzkoan Jaizkibel mendiko aipamenak genituen bakarrik baino ALEJANDRE-k, (1989: 4) dioen bezala, garo espezie honen banaketa uste zena baino zabalagoa dugu Euskal Herrian.

**Pterocarya fraxinifolia** (Poiret) Spach

BIZKAIA, Galdakao: Ibaizabal ibaia, WN1585,45 m, ARAN 8.91.

BIZKAIA, Lemoa: Arratia ibaia, WN1883, 60 m, ARAN 192.91.

Ibaizabal eta bere adarra den Arratia ibaien bazterretako landaredian, kilometro batzuetako luzeran, bertakotua azaltzen zaigu, zuhaitz sendoak eratuz eta naiz aldakaitzez nola haziz ugari zabaltzen ari da gainera. Kaukasoa eta Iraneko iparraldean duenez jatorria, seguru aski apaingarrritzat erabilitakoen batzen ondorengoak ditugu, nahiz eta orain zuhaitz mota hau apena erabiltzen den gure eskualdean.

**Boussingaultia cordifolia** Ten.

GIPUZKOA: Donostia, Ulia mendia, WN8398, 50 m, ARAN 293.90.

Jatorriz Hego Amerikakoa den landare subtropical hau, eraldaturiko txilardien gainean bilakatzen da; oraindik ez zen ezagutzen Iberiar Penintsulako kantauriar partean.

**Aconitum variegatum** L. subsp. **pyrenaicum** Vivant

GIPUZKOA, Abaltzisketa: Txindoki mendia, WN7464, 1220 m, ARAN 473.91.

GIPUZKOA, Amezketa: Ondarre, WN7664, 830 m, s.t.

GIPUZKOA: Enirio-Aralar: Pardarri mendia, WN7761, 1260 m, s.t.

Pirineoko mendebala eta Euskal Mendietako endemismo interesgarri honentzat lehen aipamenak dira Gipuzkoarako, ASEGINOLAZA & al.-en (1985: 171) argitaratu zirenak Nafarroakoak bai ziren; Aralar mendian ditugun landare interesgarrienetakoa dugu hau eta labar haundien oinean eta amildegietan babesten da.

**Ranunculus gramineus** L.

GIPUZKOA: Oinati, Araotz, WN4560, 500 m, ARAN 625.90.

Karri haitzak agerian dituzten larreetan. Hau izan behardu GANDOGER-ek (1917: 7) Eskoriatzarako egiten zuen aipamenaren leku zehatza; aurreko hau da, bestalde, Gipuzkoaroko ezagutzen zen landare honen aipamen bakarra.

**Genista monspessulana** (L.) L. Johnson [*Teline monspessulana* (L.) C. Koch]

GIPUZKOA, Ibarra: WN7576, 100 m, ARAN 421.90.

Apainketarako kultiboetatik bertakotua, landare mediterraneear hau aldaerazitako mendi hegal batean ugari zabaltzen ari da.

**Galega officinalis** L.

GIPUZKOA, Deba: Elorriaga, WN5793, 80 m, ARAN 2364.86 (J. Loidi leg.).

Euskal Herriko hegoaldetik bakarrik ezagutzen zen taxoi hau eta itsas ertzean azaltzen da orain, nahiz eta eraldatutako belardietan izan.

**Onobrychis argentea** Boiss. subsp. **hispanica** (Sirj.) P.W.Ball

GIPUZKOA, Enirio-Aralar: Auntzitzegi WN7462, 1220 m., ARAN 325.91.

Gipuzkoaroko landare berri bat; Euskal Herrian submediterraneear eskualdean banatzen diren beste taxoi batzuren antzera, kantauriar eragin osoa duten leku mugatu batzuetaraino zabaltzen da hau ere. Karri-mendietako hegal harritsu eta eguzkitsuetan, pagadien mendelean, aurkitu dugu.

**Myrrhis odorata** (L.) Scop.

GIPUZKOA, Amezketa: Larraone, WN7564, 1100 m, s.t.

GIPUZKOA, Abaltzisketa: Txindoki, WN7464, 1200 m, s.t.

Aralar menditik ezagutzen ziren aipamenak Nafarroakoak zirenez (cf. ASEGINOLAZA & al., 1985: 489), Aizkorritik kanpora lehen aipamenak dira hauek Gipuzkoaroko; leku hauetan, bestalde, ugari azaltzen den landarea dugu.

**Petroselinum segetum** (L.) C. Koch

GIPUZKOA, Bergara: Egiño, WN4560, 400 m, ARAN 626.90.

Mendi pista baten ezponda eguzkitsuan, karaitz substratu gainean. Euskal Herrian Mediterraneearisua-

rialdean zabaltzen da batez ere eta, Gipuzkoarako, berria da espezie hau ere.

#### ***Teucrium botrys* L.**

ARABA, Izarra: WN05, 600 m, ARAN 630.90.

Nahiz eta aspaldiko aipamen bat baino gehiago izan, azken urteotan behin bakarrik aurkitu da Araban (cf. ALEJANDRE & al., 1987: 127).

***Odontites verna* (Bellardi) Dumort. subsp. *serotina* (Dumort.) Corb.**

GIPUZKOA, Aretxabaleta: Urkulu, WN4263, 340 m, ARAN 631.90.

Kareari zorua duen belardi utzi batean aurkitu dugu; Gipuzkoarako ezagutzen dire aipamen bakanrak, landare honen kasuan, GANDOGER-ek (1917: 267) eman zizkigun Eskoriatzan eta Arantzazuko mendietan hain zuzen.

#### ***Pedicularis foliosa* L.**

GIPUZKOA, Amezketa: Ondarre, WN7664, 780 m, s.t.

Lehen ere Aralar menditik ezaguna Zen (cf. ASEGINOLAZA & al., 1985:694), bainan hor aipatzen diren lekuak Nafarroakoak direnez, Gipuzkoaroko lehen eta bakarra dugu honako aipamen hau.

#### ***Matricaria perforata* Mérat**

GIPUZKOA, Legorreta: WN7070, 120 m, ARAN 1326.88.

Noizbehinkakoa, ezponda baten eraginiko lurretan; Euskal Herriko eskualde kantauriarrean ez zen ezagutzen orain arte.

#### ***Potamogeton pusillus* L.**

GIPUZKOA, Tolosa: Oria ibaia, WN7474, 80 m, ARAN 225.91.

Urak jaistean geratzen diren urgeldietan; Gipuzkoan bere presentzia kostaldean bakarrik ezagutzen zen eta pozgarria da Oria ibaiaren uretan oraindik ere honelako landare urtarra irautea.

#### ***Najas marina* L.**

GIPUZKOA, Aretxabaleta: Urkuluko urtegia, WN4263, 325 m, ARAN 326.90 (I. Mendiola leg.).

Gipuzkoan eraiki berriak diren urtegietan ere azaltzen hasi zaigu landare akuatiko hau; orain arte Arabako urtegietatik bakarrik ezagutzen zen.

#### ***Cynosurus elegans* Desf.**

GIPUZKOA, Oinati: Araotz, WN4560, 400 m, ARAN 627.90.

Harkaitz-labarren oinean aurkitua, euterako leku babes eta eguzkitsu batean, Gipuzkoan ezagutzen den leku bakarra hau.

#### **«*Glyceria plicata*» (Fries) Fries**

Taxoi honi buruz Gipuzkoarako eginiko aipamena (AIZPURA & CATALAN, 1988:92) ahaztu beharra dago, zeren, zitak oinarritzat duen aipamena, beste taxoi bateri dagokio, *Puccinellia maritima* (Hudson) Parl., hain zuzen.

#### ***Panicum dichotomiflorum* Michx.**

GIPUZKOA, Bergara: Bolu, WN4874, 150 m, ARAN 629.90.

Gorlarako bidean, ezponda baten aurkitua, Península Iberiarrean azaldu berria (cf. Rico, 1983: 469) eta bizkor zabaltzen ari den neofitoa dugu hau. Euskal Herrian Donibane Lohitzunen bakarrikezagutzen zen, VIVANT (1978:522), eta oraindik orain Nafarroako Milagron aurkitua izan da (cf. PATIÑO & al., 1991, prentsan).

#### ***Dichantium ischaemum* (L.) Roberty**

GIPUZKOA, Bergara: Bonbulu, WN4873, 200 m, ARAN 628.90.

WILLKOMM & LANGE-k (1870: 47) Donostian eta Lazaro-k (GREDILLA, 1913: 77) Getarian, landare honen berri eman ziguten Gipuzkoaroko, nahiz eta ge-roago (cf. ASEGINOLAZA & al., 1985: 1054), oniritzik ez duten izan zita hauek. Guk hegoaldera begira eta zoru harbeltsua duen bide galdu batean aurkitu dugu.

#### ***Misanthus sinensis* Anderss.**

GIPUZKOA, Aia: Amezketalardi, WNM6688, 350 m, ARAN 1524.89.

Jatorriz Txina eta Japoniakoa eta apaigangarritzaterabilten den graminea hau sega-belardi batean aurkitu dugu, nondik bertakotu den asmatzerik izan ez ba dugu ere; ez zen oraindik ezagutzen Euskal Herrian.

#### ***Carex elata* All. subsp. *elata***

GIPUZKOA, Tolosa: Oria ibaia, WN7474, 80 m, ARAN 1570.89.

GIPUZKOA, Lizartza: Araxes ibaia, WN7773, 120 m, ARAN 1607.89.

Nahiz eta Oria eta, Araxes bezalako kasuetan, bere ibaiadarretakoren batzuen ubideetan ugaria izan, aipatu gabe zegoen oraindik Gipuzkoan.

**Himantoglossum hircinum** (L.) Sprengel

GIPUZKOA, Ataun: kaseta, WN6856,280 m, s.t.

Lehen aipaturiko lekutik gertu (cf. AIZPURA & al., 1989: 130), Ataun aldeko artadiak orkidea interesgarrietan duten aberastasunaren lekuko dugu hau ere.

## BIBLIOGRAFIA

AIZPURA, I. & P. CATALAN

1988 *Aportaciones al conocimiento de la flora navarra, II. Monografías del Inst. Pir. de Ecol.* 4:87-94. Jaca.

AIZPURA, I., P.CATALAN, F. GARIN & J.L. TERES

1989 Gipuzkoa eta Bizkaiko Landare Katalogoari Eraskinak, I. *Munibe (Natur Zientziak)*, 40 129-130.

ALEJANDRE, J.A.

1989 Datos corológicos sobre pteridófitos peninsulares. *Fontqueria* 24 3-4.

ALEJANDRE, J.A., C. ASEGINOLAZA, D. GOMEZ, G. MONTSERRAT, G. MORANTE, P.M. URIBE-ECHEBARRIA, P. URRUTIA & I. ZORRAKIN

1987 Adiciones y correcciones al Catálogo florístico de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa. *Munibe (Ciencias Naturales)* 39: 123-131.

ASEGINOLAZA, C., D. GOMEZ, X. LIZAUR, G. MONTSERRAT, G. MORANTE, M.R. SALAVERRIA, P.M. URIBE-ECHEBARRIA & J.A. ALEJANDRE

1985 *Catálogo florístico de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa.* 1149 pp. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz.

CASASAYAS, T. & A. FARRAS

1986 *Polystichum falcatum* (L. fil.) Diels, adventicia a Catalunya. *Coll. Bot.* 16(2): 425-426.

GANDOGER, M.

1917 Catalogue des plantes récoltées en Espagne et en Portugal pendant mes voyages de 1894 à 1912. 378 pp Ed. Masson. Paris.

GREDILLA, A.F.

1913 *Apuntes para la corografía botánica vasco-navarra.* Barcelona.

PARROT,A.G.

1982 Une fougère exotique: *Polystichum falcatum* Dils., var. *Rochefordii*, naturalisée à Biarritz, 64200 France. *Bull. Soc. bot. Centre-Ouest.* 13: 15-23.

PARROT,A.G.

1984 A propos de *Polystichum falcatum* (L.) Diels. *Bull. Soc. bot. Centre-Ouest.* 14 31-32.

PATIÑO, S, P.M. URIBE-ECHEBARRIA, P. URRUTIA & J. VALENCIA

1991 Notas corológicas sobre la flora vascular del País Vasco y aledaños, V. *Estudios Instituto Alavés de la Naturaleza* 6 (prentsan).

RICO, E.

1983 *Panicum dichotomiflorum* Michx novedad para la Península Ibérica. *Anal. Jard. Bot. Madrid* 40(2): 469.

VIVANT, J.

1978 Nouvelles phanérogames adventices se naturalisant principalement dans le Sud-Ouest et les Pyrénées. *Bull. Soc. bot. Fr.* 125(9): 521-526.

WILLKOMM, M. & J. LANGE

1870 *Prodromus Flora Hispanicae.* Vol 1. 346 pp. Stuttgart.